

berria

mantangorri
ASTEKO ASMAKIZUNA

Klari naiz izenez,
ona naiz izatez,
zuria naiz kolorez. **Zer da?**

(Kont)zientziari astindua



EDABE

Asmakizunaren jatorria: Nik papaita, zuk papaita (igarkizunak, olerkizunak eta igarkilimak). Xabier Olaso (Pamiela).

Erantzuna: Klariona. ● ● ● ●



ERREPORTAJEA

‘Piztu! EmakumeON’ *energia* antzezlan

ARGAZKIAK: EIDABE



Emakumeek ere zientzian lan egin dezakete. Oinarrizkoa eta sinplea badirudi ere, horixe da Eidabe antzerki taldearen *Piztu! EmakumeON energia* antzezlanaren mezu nagusia. «Guztiok dakigu hori posible dela, baina, oraindik ere, aurreiritziak daude gizartean», azaldu du Imanol Ituiño zuzendariak. Hain zuzen, aurreiritzi horiei kontra egiteko antzezlan bat sortu nahi zuten Eidabekoek, eta Ituiñorengana jo zuten, proposamenarekin.

Hasieran, Marie Curieren bizitzari buruzko antzerki dokumental bat

Aurreiritziak, taula gainean

Eidabe antzerki taldearen ‘Piztu! EmakumeON energia’ antzezlanak zientzia topaketa bat du abiapuntu, eta emakumeek zientzian duten garrantzia nabarmentzen du. Hainbat esperimentu egiten dituzte ikuskizunean.



EMANALDIAK

- ☉ **Bihar:** Berango.
- ☉ **Martxoak 7:** Getxo.
- ☉ **Martxoak 9:** Lasarte.
- ☉ **Martxoak 10:** Soraluze.
- ☉ **Martxoak 11:** Iurreta.
- ☉ **Martxoak 12:** Donostia.
- ☉ **Martxoak 13:** Areatza.
- ☉ **Martxoak 14:** Alonsotegi.
- ☉ **Martxoak 18:** Ortuella.
- ☉ **Martxoak 19:** Donostia.
- ☉ **Martxoak 30:** Lauaxeta ikastola.



FITXA

- ☉ **Gidoia eta zuzendaritza:** Imanol Ituiño.
- ☉ **Antzezleak:** Tania Fornieles eta Nahikari Rodríguez.
- ☉ **Ilustrazioa:** Marta Domínguez.
- ☉ **Musika:** Mikel Inun.
- ☉ **Eszenografia:** Maria Casanueva.
- ☉ **Ekoi zpena:** Eidabe.

egiteko asmoa zuten, baina, azkenean, beste era batera antolatuta dute antzerkia, «astuna» ez egiteko: «Oso zaila da ume bati interesa piztea orain dela ehun urte gertatutako zerbaiti buruz». Agertzen da Marie Curie, ematen dituzte hari buruzko zertzelada batzuk, baina ez da hura istorioaren erdigunea.

Istorioak kongresu zientifiko bat du abiapuntu. Aktoreetako bat (Nahikari Rodríguez) kongresuko aurkezlea da, eta bestea, Tania Fornieles, berriz, zientzialaria. Rodríguez kongresua aurkeztzen hasten da, antzerki ikusleak zientzialaritzat hartuz. «Kongresu horretan bildu dira askakuntza

bat ikusteko: zientzialari batek ezjakintasuna bukatzeko makina bat asmatu du», azaldu du Ituiñok.

Eta hor hasten da aurreiritzien dantza. «Orduan, [Rodríguez] galdezka hasten da: nolakoa izango da zientzialari hori? Bizar zuria izango du? Nagusia izango da? Beti bata zuriz jantzita joango da?». Eta hara non agertzen den zientzialaria [Fornieles]: emakumea, eta, gainera, gaztea. Askoren ustearen kontra, zientzialariak ez dutelako zertan gizonak eta helduak izan.

Ezjakintasuna bukatzeko makina hartuta, pertsonaiek denboran atzera egiten dute, Marie Curieren garaia,

eta esperimenduak ere egiten dituzte. Pandemia garaian egindako ikuskitza denez, haurrak parte hartzera bultzatzen dituzte, baina eszenatoki-ira igo gabe: «Ikusteko esperimenduak dira: badaude kolorez aldatzen diren likido batzuk, laser batekin eztanda egiten duen globo bat, ke eraztun erraldoiak ere egiten ditugu haizea nola mugitzen den ikusteko...».

Umore kutsuko antzezlan da, eta pailazo klasikoaren egiturari jarraitzen dio: pertsonaia bat jakintsua da, serioa, eta bestea, berriz, motz samarra eta barreagarria. Hitz jokoak, txisteak eta bromak daudela dio Ituiñok, eta pertsonaia bat bestearekin bo-

rrokan dabilta beti: «Aurkezleak askotan ez du ulertzen zientzialariak azaltzen diona; biak ez daude maila berean».

Ituiñok aipatu du 6 urtetik gorako edonork ikusteko moduko antzezlan dela, familia osoak batera ikusteko egokia. Gainera, generoari buruzko aurreiritziak ez ezik, zientziari buruzkoak ere hautsi nahi izan zituzte: «Zientzia mutilentzat izatea ez delako aurreiritzi bakararra. Zaila eta aspergarria dela ere esaten da, hain zuzen. Horren aurka egitea ere bazen gure asmoa».

Udan estreinatuta zuten antzezlan, eta pozik daude jasotako balorazioekin: «Oso feedback ona jaso dugu, bai umeen eta bai irakasleen partetik. Guretzat, oso pozgarria da egunero umeekin lan egiten duen pertsona batek esatea antzezlan oso ondo azalduta dagoela. Agertokiz agertoki jarraituko dute, zientziari buruzko aurreiritziak eraisten.